

Aurkezpena

Gipuzkoako Foru Aldundiari atxikia, Untzi Museoa 1991. urtean zabaldu zen. Handik hona igarotako hamar urte oparoak ikusita, Aldundiak badu pozik egoteko adina arrazoi, kultur emari handiko ibilbidea egin baitu dagoeneko. Museoaren kudeaketa egokiari esker, emaitza nabariak izan dira jardun alor guztietan.

Itsas ondarea oso ikuspegi zabaletik landu du Untzi Museoak eta, hartara, hastapen haietako ondasun bilduma arrunt aberastea lortu du, artean inolako arretarik jasoa ez zuten ondasun mota batzuk, untziak berak esaterako, museoaren bildumetara erakarriz. Interes historiko edo antropologikoko hainbat elementu material honez gero galduak ziren Museoa tarteko izan ez balitz.

Ikerlanean ere emaitza bikainak izan ditu Untzi Museoak. Bertan argitaratutako ikerlanek, kopuruz eta kalitatez, erreferentzia gune bihurtu dute euskaldunen itsas kulturaren iraganaz eta orainaz arduratzen diren guztientzat.

Zabalkunde lanean, berriz, erakusketa ugari antolatu ditu museoak, ordu arte plazaratu gabekoak ziren edo jendeak apenas ezagutzen zituen gaiak jakitera emanez. Heziketa arloan, gainera, programa didaktikoen eskaintza zabala izan du urteotan; esan liteke Untzi Museoa aitzindaria izan dela, Euskal Herrian, programa bereziak ezinduentzat nahiz gizarte arazoak dituztenentzat egokitzen. Azpimarratzekoa da, baita ere, euskal museoetan lehenbizikoa izan dela bakerako heziketa lantzen, gure gizarteak horren beharrezkoa duen alorra ereiten.

Untzi Museoak oso argi izan du kalitate onez eta erantzukizunez lan egin behar zuela, balio handiko ondarea baitu ondoko belaunaldietara iritsarazi behar duena. Jakingo al du ibilbide egoki horri jarraitzen!

Luis Bandres Unanue

Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Departamentuko Foru Diputatua